Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, 2019/2020 Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroan (TKNIKA), hainbat dinamizatzaile lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin-behinekoz ebazten duena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2019/2020 Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroan (TKNIKA) erakundean, hainbat dinamizatzaile lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez, betetzeko.

Deialdiaren zazpigarren artikuluaren arabera, balorazio-prozesua egin ondoren eta proposamena eginda, deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko da jendaurrean, Saileko web-orrian; halaber, erreklamazioak egiteko hiru egun balioduneko epea zabalduko da.

Horiek horrela, hautaketa-batzordeak egindako proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea esleipenaren onartuen behin-behineko zerrenda, baztertutako eskaerak eta eskatzaileen behin-behineko puntuazioa eta lan poltsa I, II eta III Eranskinetan jasota hurrenez hurren.

Bigarrena.-. Interesatuek euren eskubideei egokitzen zaizkien erreklamazioak egin ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 26a

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA